


ortzadar

larunbata, 2015eko abenduaren 26a. 430. zenbakia

noticiasdealava.com

euskal kulturaren kolore guztiak



BIGARREN ESKUKOAK

Asko ugaritu dira
esku berriak bilatzen
dituzten liburuak
salerosen dituzten
dendak

-- 4-5. orrialdeak --





Nobedadeak, prezio erdian

Liburuen merkatuak urteak daramatza salmenten beherakada pairatzen. Azken aldian, mundu osoan zehar, argitaletxe eta liburu-denda askok behin betiko pertsiana jaitsi behar izan dute. Egoera honi buelta emateko asmoz, Bilboko Gran Vian dagoen TopBooks liburu-dendak 'Vivi2' izeneko ekimena jarri du

martxan. Nobedadeak erosi eta hauek bigarren eskuan saltzean datza ideia. Dendak jartzen duen baldintza bakarra azken hilabeteetan editatu eta argitaratutako liburuak izatea da. Ale hauei 'Vivi2' zigilua jartzen zaie eta %50eko deskontuarekin saltzen dira, esku berrietan berrirakurriak izateko.



20 zentimotan erosi eta 2 edo 3 eurotan saltzen dira liburuak Re-Read-en. RE READ

sofiatik aldentzen dena" da bigarren eskukoa, Lekuaren iritziak, "lehenengoa zinearen edo musikaren irizpide komertzial bertsuetan oinarritzen" dela baitio. Beste merkatuetan bezala, "gure alorrean ere produktu batzuk denborarekin hor mantentzen dira, baina beste asko ahazten diren fenomeno tenporalak izatera mugatzen dira. Gure kasuan, interesa mantentzen edo areagotzen duten liburu horietan oinarritzen da merkatua".

EUSKARAZ, URRI Euskarazko liburu gutxi heltzen zaizkiela aitortu dute hiru dendetako arduradunek. "Euskarazko bigarren eskuko liburu merkatua fenomeno berria da oraindik, eta kostatuko zaio antzinako liburu merkatuan gutzit murgiltzea. Dena den, ikusten da interesak gora egin duela", baieztatu du Astarloatik Lekuek. Re-Readen ere euskarazko ale gutxi heltzen zaizkie momentuz, "%85a gaztelaniaz dira", diote arduradunek. Sekhmeten kasuan, azkenik, saltzen dituzten ale guztiak gaztelania hutsean direla aitortu du Cormenzanak.

Gaur egun paperezko liburuek duten lekua buruz "irakurtzea maite duen jendeak papera nahiago" izaten jarraitzen duela dio Cormenzanak. Rodriguezek, aldiz, euskarri honen krisia ere nabari dela azpimarratu du: "Liburuak saltzeko ekartzen dizkigutenean artean e-book-a erabiltzen hasi direnak ere badaude, baina egia da jende asko oraindik

ez dela eroso sentitzen formatu digitalean irakurtzen". Gaur egun bezalatsu, papera eta euskarri digitala etorkizunean ere "elkarrekin bizi" daitezkeela uste dute Iruñeko dendariak, nahiz eta gaineratu duten ilustrazioak edo argazkiak dituzten liburuak ezin direla e-book batean disfrutatu.

Askok uste dutenaren eta datuek diotenaren kontra, Lekuek, Cormenzanak eta Rodriguezek bat egiten dute gaur egun jendeak gehiago irakurtzen duenaren baieztapenarekin. "Galdetu beharko litzateke ea jendeak paperean edo tablet-ean irakurtzen duen, liburuak modaz pasatu diren, kultura garestiegia den... Datuek diote gutxiago irakurtzen dela. Uste dut lehen gehiago erosten zela eta gutxiago irakurri; baina, era berean, liburu hitzak berak askori *kariñoa* eta errespetua iradokitzen dio", dio Lekuek. Etorkizuna, ordea, aldakor ikusten dute. Bilbotarrak "liluragarritzat" jotzen du geroa: gogorra, ona, bizitza bera bezala". Cormenzana ere etorkizuna begi onez ikusten saiatzen da, "baina, errealista izanda, dena da zaila; ez da sektorea beragatik soilik, egun ez dago urte askoan irauten duten komertzio gehiegirik", agertu du bere kezka. Azkenik, Rodriguezen aburuz, "liburuak oraindik badu zeresanik, baina adi egon beharko gara bizitzeko modu berriei. Munduak bere martxa jarraituko du, aldaketak etorriko dira, baina moldatuko gara eta beste zerbait asmatuko dugu, betiko legez".

